

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Macbeth ya somos el olvido que seremos antzezlanarekin hasiko da Erriberriko Antzerki Klasikoaren beste aste bat

Asteazkenean aurkeztuko da Raúl Hernández Garridoren Restos / Fedra lana


Astelehena, 2016.eko abuztuak 1

Alauda konpainiak, gaur, abuztuak 1, *Macbeth ya somos el olvido que seremos* lana aurkeztuko du La Cava agertokian, [Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiko OT4OS KLA2IKO2](#) zikloaren barruan. William Shakespeareren lanean dago oinarrituta, baina Rafael Benitoren bertsioa da, eta berak zuzendu du, baita ere. Ziklo horretan, abuztuaren 3an, asteazkenean, TNT-Centro Internacional de Investigación Teatral taldearen *Restos / Fedra* lana ikusi ahal izango da, La Cavan, 22:00etan. Raúl Hernández Garridoren lana da, baina Juana Casadok zuzendu eta moldatutakoa.

Macbeth ya somos el olvido que seremos lanean, Alauda Teatro konpainiak hainbat teknika darabiltza, esate baterako, harizko marionetak, bunnakua,

miniaturak, askotariko txotxongiloak eta maskarak. Horien guztien artean, nagusi, *Máquina de la guerra y el poder* izeneko tramankulu-instalazioa egongo da, elementu mugikorrez osatua. Rafael Benito eta Estrella R.-k antzeztuko dute, eta Carlos Ghiringelli aktore-musikari eta Isabel Sobrino musikari arituko dira.

1997an idatzi zuen *Restos / Fedra* lanaren testua Raúl Hernándezek. Calderón edo Lope de Vega bezalako sariak jaso ditu haren lanek. Tragedia greziarraren prozedura formalak, berrituta, ditu jaialdian ikusgai egongo den lanak, eta gaia ondare mitologiko klasikoari



Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiko kartela.

loturikoa da.

Leihatilan eros daitezke sarrerak (Iruñean, Baluarteren atarian, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara, eta Erriberrin), 12 euroren truke (6 euro gazte-txartela erakutsiz gero).

The Complete Walk

Bestalde, Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiak *The Complete Walk* lanaren hainbat proiektio antolatu ditu. William Shakespeareren irudimenari, bizitzari eta ondareari buruzkoak dira, 37 film laburren bidez azalduta. Haren lan guztiak moldatzen dituzte, eta narrazioen kokalekuetan grabatu dira. La Cavan emanaldiak egongo diren egunetarako antolatu dira proiektioak, hau da, abuztuaren 1, 3, 5 eta 6an, 20:00etatik 22:00etara. Hori dela eta, gaur, *Monarcas* emango dute, 3an *El amor y otras pasiones*, 5ean